

ESKORIATZAKO UDALEAN TELELANA EZARTZEKO ERREGELAMENDUA

AURREKARIAK

2020. urtean sortutako pandemiak eta haren ondorioz araututako etxealdiak, telelanean jarri zuen gizartearen zati handi bat. Beraz, telelana praktikan frogatzeko aukera erreala egon da, ezohiko alarma egoera batean izan bada ere.

Araudi honen helburua ez da ezohiko egoeretarako Telelana arautzea, baizik eta ohiko egoeran Eskoriatzako Udalaren antolamendu eredu gisa txertatzea Telelana.

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, bere 47bis artikuluan ematen digu telelanaren definizioa: *“aquella modalidad de prestación de servicios a distancia en la que el contenido competencial del puesto de trabajo puede desarrollarse, siempre que las necesidades del servicio lo permitan, fuera de las dependencias de la Administración, mediante el uso de tecnologías de la información y comunicación.”*

Telelana, beraz, kontzeptu eboluzionatua eta gaurkotua da, administrazio publikoen modernizazio-prozesuari lotua.

Gaur egun, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliz, eraldaketa handia gertatzen ari da administrazioan, eta lan egiteko modu berriak garatu dira, hala nola administrazio elektronikoa, tramiteen eskuliburua, espedienteen kudeaketa elektronikoa eta partekatutako espazio birtualak. Zerbitzua orain arte ezagutu ez diren beste modalitate batzuen bidez emateko aukera dago, baita erakundetik kanpoko leku baten lana eginez ere.

Telelana, gainera, zerbitzuak emateko antolaketa-modu gisa ulertu behar da, helburuak finkatzearekin, aldizka zereginak ezartzearekin eta emaitzen etengabeko bilakaerarekin lotuta egon behar duena. Telelana ez da langilearen eskubide bat izango, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuak arautzen duen 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, 47bis artikuluan, berariazko baimena behar duela xedatzen baitu.

Aurrez-aurreko lanaldia eta telelana bateragarriak izango dira, eta beraz, aurrez aurreko lana eta telelanaren artean ez da apurketarik emango, berdin bermatuko dira laneko arriskuen prebentzioaren-, gizarte segurantzaren-, pribatutasunaren- eta datuen babesaren- eta konfidentzialtasunaren-arloan ezartzen diren baldintzak. Hori horrela, telelangileek langile presentzialek dituzten legezko eta hitzarmen bidezko eskubide berberak izango dituzte.

Telelana arautzearekin udal langileen bizitza familiarra eta profesionala uztartzeko erraztasunak eman nahi dira, zerbitzuaren kantitatea eta kalitatea murriztu barik. Neurri hauekin lanaren kalitatearekiko konpromisoa eta langileen motibazioa areagotu nahi



dira, interes orokorrari ekarpena eginez. Gainera, telelanaren ezarpenarekin langileen joan-etorria murriztuko da, denbora aurreztuz eta joan-etorrietan egon daitezkeen arriskuak saihestuz, eta, negutegi efektuko gasen isurketa gutxituta, ingurumen inpaktua ere murriztuko da.

Eskoriatzako Udalak, herritarrei kalitate handiko zerbitzua emango dion administrazio modernoa izateko borondatearekin eta aurrekari hauetan aipatutako printzipioetan oinarrituta, Erregelamendu proposamen hau egiten du.

TELELANAREN UDAL ERREGELAMENDUA

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio-eremua.

Erregelamendu honen xedea da dokumentu bakarrean finkatzea Eskoriatzako Udalean telelana arautzeko ordezkari sindikalekin adostutako irizpideak eta akordioak.

Erregelamendu hau Eskoriatzako Udaleko langile guztiei aplikatuko zaie, lan-kontratuko langileei zein funtzionarioei, baldin eta lanpostuaren ezaugarriak bateragarriak badira lan modalitate honekin.

Erregelamendu honek ez ditu barne hartzen astebetetik beherako eskaerak. Horiek zuzenean adostu beharko dira arloko zinegotzi arduradunarekin.

Bigarrena.- Telelanaren kontzeptua.

Telelana aurrez aurrekoa ez den lan-aukera bat da, eta horren arabera, langileek beren lanpostuko eduki funtzionalaren zati bat etxetik edo aurrez aurrekoa ez den beste kokaleku batetik garatzen dute, baldin eta informazioaren teknologiek horretarako aukera ematen badute.

Zerbitzuak emateko modalitate hori borondatezkoa eta itzulgarria izango da.

Hirugarrena.- Telelana eskatzeko langileek bete beharreko baldintzak.

Telelana eskatu ahal izango dute programa honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Zerbitzu aktiboan egotea eta telelanaren bidez bete nahi den lanpostuan gutxienez urtebetez aritu izana azkeneko 2 urteetan.
- b) Telelanean garatzeko modukoa den lanpostua betetzea.
- c) Lan-jarduna gutxienez % 60koa izatea.
- d) Lanpostuari dagozkion eginkizunak telelanaren modalitatean garatzeko behar adina ezagutza informatiko eta telematiko, teoriko eta praktikoa izatea.



- e) Telelanean hasten den egunean, telelanean arituko den lekuan komunikazio-sistemak izatea, eta uneoro izateko konpromisoa hartzea. Sistema horiek Udalak zehaztutako teknologia eta segurtasun ezaugarriak izan beharko dituzte.
- f) Arloko zinegotzi arduradunaren adostasuna izatea.
- g) Telelanean hasten den egunean lanpostuari dagozkion laneko arriskuen prebentzioaren arloko baldintzak beteta izatea (16. artikuluan zehazten dira).

Enplegatu publikoek telelanean lan egiten duten denbora guztian bete beharko dituzte artikulua honetan ezarritako baldintzak.

Laugarrena.- Telelana egiteko aukerarik izango ez duten lanpostuak.

Ez dute telelanik egiteko aukerarik izango egunero aurrez aurreko zerbitzua ematea eskatzen duten eginkizunak dituzten lanpostuak. Aurrez aurreko zerbitzutzat hartzen dira enplegatuaren presentzia fisikoarekin soilik bermatu daitezkeenak erabat. Hain zuzen ere, honako hauek dira Eskoriatzako Udalean telelanik egin ezingo duten lanpostuak:

1. H@ZI zerbitzura atxikitako lanpostuak, zerbitzua eta gainerako funtzioak egoki eskaintzeko beraien presentzia beharrezkoa den egunetan.
2. Udaltzainak.
3. Eginbehar anitzetako langileak eta peoi lurperatzaileak.
4. Kirol instalazioetako kontserjeak.
5. Kultura eta kiroltako laguntzailea.
6. Udaletxeko garbitzailea.
7. Bibliotekari arduraduna eta laguntzailea.
8. Museoan aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen duen teknikaria.
9. Informatikaria. Hala ere, urrutiko kontrol sistemak bere funtzioak udaletxetik kanpo egoki betetzea bermatzen badio, telelana egin ahal izango du.

Aipatutako horiez gain, ez dute telelanik egiteko aukerarik izango lan-jarduna % 60tik beherakoa duten lanpostuak.

Bosgarrena.- Telelanaren iraupena eta asteko lanaldiaren banaketa.

1. Telelanaren iraupena:

Baimenduko den telelanaldi jarraituaren iraupena gutxienez astebetekoa izango da, eta, gehienez, urtebetekoa.

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta interesa duen enplegatuak eskatuta, telelan-baimena luzatu ahal izango da, baldin eta langile horren arloak aurkakorik esaten ez badu. Luzapena hasieran emandakoaren iraupen berekoa izango da, eta egoera horretan ezingo dira jarraian 3 urte baino gehiago egin.

2. Lanaldiaren banaketa:



Arloko zinegotzi arduradunaren eta eskatzailearen iritzia entzun ondoren, Alkatetzak erabakiko du nola banatuko den lanaldia modalitate presentzialaren eta telelanaren artean; baina presentzian asteen gutxienez 2 egun egin beharko dira, eta, telelanean, gehienez, asteen 3 egun, betiere zerbitzuaren beharretara baldintzatuta.

Lanaldia aurrez aurreko lanerako dagoen berbera izango da, baina alde batera utzita hasiera- eta amaiera-orduak. Hau da, telelanean dagoen langileak lan-orduak bere kasa antolatuko ditu, baina aurrez-aurreko lankideek bezala, gutxienez eta nahitaez, honako ordutegia bete beharko du: 9:30-13:30. Ordu horietan etenik gabe mantendu beharko du konexioa, bai telematikoa eta bai telefono bidezkoa ere.

Seigarrena.- Telelana egiteko baimen-prozedura.

Telelanaren iraupena kontuan hartuta, 2 prozedura bereiztuko dira:

1.- Prozedura laburra: astebetetik hilabetera bitarteko telelana eskatzen den kasuetarako. Honako hau izango da jarraituko den prozedura:

Baimena Alkatetzari eskatu beharko zaio, gutxienez 5 egun aurretik, epe hori betetzea ezinezkoa izan dela justifikatzen duen arrazoiren bat dagoenean izan ezik.

Eskaeran honako hauek zehaztu beharko dira:

- Telelanaren iraupena.
- Lan-plangintza proposamena.
- Telelanaren eta presentzialaren arteko egun banaketa.
- Telelana non egingo den (helbidea).
- Telelana egingo den lekuan komunikazio-sistema edukitzeko konpromisoa.

Idazkaritza-kontuhartzailtza arloak egiaztatuko du erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla.

Baldintzak betetzen direla egiaztatuta, Idazkaritza-kontuhartzailtzak ondorengo txostenak eskatuko ditu, organo edo teknikari eskudunak 48 ordu baino lehen egin beharko dituenak:

- **Dagokion arloko zinegotzi arduradunaren txostena:** eskaeraren aldeko edo aurkako iritzia eman beharko du. Aldeko iritzia ematen badu, telelanerako finkatutako helburu zehatzak, zerrendatuak eta definituak eta aste bakoitzean egin beharreko eginkizunak zehaztu beharko ditu, telelanak irauten duen bitartean eginkizunak gehitu edo aldatzearen kalterik gabe. Aurkako iritzia badu, horretarako arrazoiak justifikatu beharko ditu.
- **Informatika zerbitzuen txostena:** baliabide telematikoen eta telelaneko lekuaren konektibitatearen bideragarritasuna egiaztatu beharko ditu.
- **Lan arriskuak prebenitzeko zerbitzuaren txostena:** neurrien betetze mailari buruzkoa.



Txosten horiek ikusita, Alkatetzak erabaki arrazoitua emango du eskaera onartzeko edo ukatzeko.

Erabakia aldekoa bada, erabakian bertan honako hauek, gutxienez, zehaztu beharko ditu:

- Telelanaren iraupena.
- Telelana gauzatuko den lekuaren helbidea.
- Telelanaren eta lan presentzialaren arteko egun banaketa.
- Konexio digitalerako gutxienezko ordutegia.
- Jarraipena egiteko modua.

2.- Prozedura arrunta: hilabetetik gorako telelana eskatzen den kasuetarako. Honako hau izango da jarraituko den prozedura:

Baimena Alkatetzari eskatu beharko zaio, gutxienez, bi hilabete aurretik. Eskaeran honako hauek jaso beharko dira:

- Telelanaren iraupena.
- Lan-plangintza proposamena.
- Telelanaren eta presentzialaren arteko egun-banaketa.
- Telelana non egingo den (helbidea).
- Telelana egingo den lekuan komunikazio-sistema edukitzeko konpromisoa.

Idazkaritza-kontuhartzailtza arloak egiaztatuko du erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla.

Baldintzak betetzen direla egiaztatuta, Idazkaritza-kontuhartzailtzak ondorengo txostenak eskatuko ditu, organo edo teknikari eskudunak 10 egun baino lehen egin beharko dituenak:

- **Dagokion arloko zinegotzi arduradunaren txostena:** eskaeraren aldeko edo aurkako iritzia eman beharko du. Aldeko iritzia ematen badu, telelanerako finkatutako helburu zehatzak, zerrendatuak eta definituak eta aste bakoitzean egin beharreko eginkizunak zehaztu beharko ditu, telelanak irauten duen bitartean eginkizunak gehitu edo aldatzearen kalterik gabe. Aurkako iritzia badu, horretarako arrazoiak justifikatu beharko ditu.
- **Informatika zerbitzuen txostena:** baliabide telematikoen eta telelaneko lekuaren konektibitatearen bideragarritasuna egiaztatu beharko ditu.
- **Lan arriskuak prebenitzeko zerbitzuaren txostena:** neurrien betetze mailari buruzkoa.

Txosten horiek ikusita, Pertsonal arloko batzorde informatzaileak eskaerari buruzko proposamen arrazoitua egingo dio Alkatetzari.

Batzorde informatzailearen proposamena ikusita, Alkatetzak erabakia emango du eskaera onartzeko edo ukatzeko.

Erabakia aldekoa bada, honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:



- Telelanaren iraupena.
- Telelana gauzatuko den lekua helbidea.
- Telelanaren eta lan presentzialaren arteko egun banaketa.
- Konexio digitalerako gutxienezko ordutegia.
- Jarraipena egiteko modua.

Zazpigarrena.- Telelana ukatzeko arrazoiak.

Telelan-eskaerak ukatzen dituzten erabakiak arrazoiu egin beharko dira, eta ukatzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

- a) Langileak akordio honetako 3. arauan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- b) Zerbitzuaren beharrak behar bezala ez betetzea, zinegotzi arduradunaren txostenak horrela egiaztatzen badu.
- c) Azpiegitura teknologikoen mugak edo telelanaren lekuan konektibitatea bermatzeko ezintasuna, informatikako teknikariaren txostenean egiaztatua.
- d) Antolaketa-arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.
- e) Enplegatuek presentzialki edo telelaneko aurreko aldiak ez bete izana bere lanpostuari ezarritako helburuak, zinegotzi arduradunaren txostenak horrela dioenean.

Zortzigarrena.- Aldi baterako etetea.

Telelan modalitatean lan egiteko baimena aldi baterako eten ahal izango da enplegatuari edo zerbitzuaren beharrei eragiten dieten gorabeherengatik.

Espediente hori izapidetzean entzunaldia emango zaio baimena eten nahi zaion langileari. Justifikazio-inguruabarrak egiaztatu ondoren, Alkatetzak baimena eteteke erabaki arrazoiua emango du, etete-epea adierazita.

Bederatzigarrena.- Telelanerako emandako baimena indargabetzea.

Telelana egiteko baimena indarrik gabe geratu ahal izango da, honako arrazoi hauek direla medio:

1. Zerbitzuaren beharengatik.
2. Ezarritako helburuak ez betetzeagatik. Zinegotzi arduradunak egindako txostenaren bidez egiaztatuko da hori.
3. Gerora agertutako arrazoiengatik, baimena ematea eragin zuten baldintzetan eta eskakizunetan funtsezko aldaketak izan direlako.
4. Interesdunak uko egiteagatik. Telelana utzi nahi den eguna baino gutxienez astebete lehenago eman beharko du horren berri. Nolanahi ere, hirugarren pertsoneri kalte eragiten bazaie, itzulera atzeratu ahal izango da..

Udalak eskatuta hasitako indargabetze prozedura tramitaterakoan, audientzia emango zaie baimena kendu nahi zaion langileari eta langileen ordezkariari. Atal honetan aipatutako arrazoietakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, Alkatetzak telelana



egiteko baimena indargabetzeko erabaki arrazoitua emango du, eta bertan adieraziko du eragina zein egunetik aurrera izango duen.

Hamargarrena.- Eskubideak eta betebeharrak.

Zerbitzua telelanean ematen duten langileak borondatez arituko dira, gainerako langileen eskubide eta betebeharrak berberekin, zerbitzua aurrez-aurrez emateari dagozkionak izan ezik.

Telelanak ez du aldaketarik ekarriko lan-baldintzei eta lanbide-karrerari dagokienez.

Hamaikagarrena.- Helburuak, zereginak eta emaitzak zehaztea.

Langileak eta arloko zinegotzi arduradunak adostu beharko dute telelan-aldian zein lan bete behar diren (plangintza) eta zein emaitza lortu behar diren (jarraipena).

Plangintza honela gauzatuko da:

- **Astebetetik hilabetera bitarteko telelana** izanez gero, telelana egiteko erabakia hartu aurretik aurkeztu beharko zaio plangintza arloko zinegotzi arduradunari.
- **Hilabetetik gorako telelana** izanez gero, telelana egiteko erabakia hartu aurretik lehenengo hilabeterako plangintza aurkeztu beharko da. Eta, ondorengo hilabeteetan, hilero aurkeztu beharko da hurrengo hilabeterako plangintza.

Telelanak irauten duen bitartean, lanaren **jarraipena** honela egingo da:

- **Astebetetik hilabetera bitarteko telelana** izanez gero, zehaztutako helburuen betetze mailari buruzko txostena telelan-eparearen bukaeran aurkeztu beharko zaio arloko zinegotzi arduradunari.
- **Hilabetetik gorako telelana** izanez gero, hilero aurkeztuko beharko zaio arloko zinegotzi arduradunari zehaztutako helburuen betetze mailari buruzko txostena.

Helburuen betetze mailari buruzko txosten ereduak, Erregelamendu honen eranskin gisa doa.



Hamabigarrena.- Lanaldi presentzian eta telelanean dauden langileen arteko koordinazioa.

Telelanean ari diren eta modu presentzian diharduten langileek modu koordinatuan lan egin ahal izateko honako neurri hauek hartzen dira:

1. Telelanean dauden langileek gutxienez astean bitan modu presentzian lana egitea.
2. Langile guztiak gutxienez 9:30etik 13:30era lanean izatea.
3. Udalak langile guztien esku jartzea komunikazio errazteko tresnak (telefonoa, tresna birtualak...), lanean erabil ditzaten.

Hamahirugarrena.- Azpiegitura tekniko.

Telelanak sortutako honako gastu hauek eskatzailearen kontura izango dira: argindarra eta Internetarako konexioa. Udalak ekipo informatikoa eta telefonoa jarriko ditu.

Udalak bermatuko du arazo teknikorik balego, hau da, ordenagailuan matxuraren bat balego, horien konponketa bere gain hartuko duela.

Hamalagarrena.- Modalitate presentzialera itzultzea.

Telelana amaitzean, enplegatua modalitate presentzialera itzuliko da, zerbitzua telelanaren bidez ematen hasi aurreko egunean zuen lanaldi-erregimen berberarekin.

Hamabosgarrena.- Datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta babesa.

Telelanean ari den langileak datu pertsonalen babesari buruzko araudia beteko du, eta ezagutzen dituen gaietarako behar den diskrezioa mantenduko du, modalitate presentzian betetzen dituen eginkizunen baldintza berberetan. Hori horrela:

- Espedienteen konfidentzialtasuna bermatu beharko du. Beraz, langileak telelanerako erabiltzen duen ekipoa ezingo du beste inoren esku jarri.
- Egindako txostenak, proposamen idatziak edo proiektuak sarean gorde beharko dira derrigorrez.
- Ezingo ditu espediente fisikoak lantokitik atera.

Hamaseigarrena.- Laneko arriskuen prebentzioa.

1. Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak telelan modalitatean ari diren langileei beren jardueraren arriskuen ebaluazioa emango die, eta baita segurtasun eta laneko osasun alorretako prestakuntza eta informazioa ere, lanean arriskurik egon ez dadin, edo, egonez gero, ahalik eta gutxien izan daitezten, eta beharrezkoak diren prebentziozko neurriak aplikatu daitezten. Aipatutako ebaluazioa 2 modu hauetakoren baten egin daiteke:



- a) Prebentzio enpresako teknikaria telelanean arituko den langilearen etxera joanda. Horretarako, langileak baimena eman beharko du.
- b) Langileak berak prebentzio enpresak emandako ebaluazio fitxa beteta.

2. Era berean, langile horiek prestakuntza saioa egin beharko dute, eta hantxe adieraziko zaie nola egokitu behar duten administrazio bulegoetatik kanpo duten lanpostua, eta, era berean, datuak ikusteko pantailak dituzten lanpostuetan ari direnei argibideak emango zaizkie hartu beharreko segurtasun eta ergonomia neurriei buruz. Prebentzio Zerbitzuak laguntza eta telefono bidezko aholkularitza emango die behar dutenean.

3. Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 54.9 artikulua aurreikusitakoaren arabera, telelan modalitatean ari diren enplegatuek beren lanean eta beren lanpostuaren diseinuan arriskuen ebaluazioan aurreikusitako neurriak aplikatu beharko dituzte, eta baita Prebentzio Zerbitzuan emandako prestakuntza eta informazioa ere. Neurri horiek aplikatu direla ziurtatzeko aitorpen agiria sinatu beharko dute.

4. Era berean, telelanean diharduten langileek edozein momentutan Prebentzio Zerbitzuari bere lantokia ikuskatu dezala eskatzeko eskubidea izango dute. Eskari horri baiezkota emango zaio, baldin eta Prebentzio Zerbitzuak irizten badio etxean bertan azterketa hori egitea beharrezkoa dela.

Hamazazpigarrena.- Dietak.

Telelanaren modalitatean zerbitzuak ematen dituzten langileek kanpoko lana egin behar duten egunetan zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarrenez aldatzen duen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan araututako dietak jasotzeko eskubidea izango dute.

Hamazortzigarrena.- Telelana modalitatearen ezarpena, jarraipena, kontrola eta gorabeheren erabakia.

Batzorde Mistoa eratuta geratzen da, bere lana izango da Eskoriatzako Udalean telelana modalitatea ezartzea, horren jarraipena egitea, kontrolatzea eta egon daitezkeen gorabeherak erabakitzea, eta honako kide hauek osatuko dute:

- Alkatea eta beste zinegotzi bat.
- Langileen ordezkaria eta beste langile bat.
- Udal idazkaria.

Batzorde horren egitekoa izango da sistema ezartzea eta behar bezala funtzionatzeaz arduratzea, sortzen diren arazoak aztertu eta horientzako irtenbideak proposatzea eta hobekuntzak ezartzeko ekarpenak egitea.



Batzorde horrek ez ditu neurtuko telelana egiten duen pertsonak egindako lanaren kantitatea eta kalitatea. Eginkizun hori arlo bakoitzeko zinegotzi arduradunarena baino ez da.